# Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,5 handitu dira 2025eko irailean

### *2024ko irailaren aldean, eraikuntzaren kostuak % 3,0 igo dira*

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,5 igo da 2025eko irailean aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. 2024ko hil beraren aldean, kostuak % 3,0 igo dira.

Sektoreka, hilabete arteko terminoetan, eraikuntzako kostuak % 0,4 aldatu dira, eta ingeniaritza zibilekoak, % 0,6. 2024ko irailaren aldean, kostuak % 3,0 igo dira Eraikuntzan eta % 2,9 Ingeniaritza zibilean.

**Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka**

**Ehunekoa**




Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

**Lehengaiei** dagokienez, kostuak % 0,6 igo dira aurreko hilaren aldean, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, ez dira aldatu. Urte arteko terminoetan, lehengaien kostua % 4,0 igo da eta eskulanarena % 0,4.

Lehengaien kostuak Eraikuntzan % 0,6 igo dira 2025eko irailean, 2025eko abuztuaren aldean, eta % 0,8 Ingeniaritza zibilean. Urte arteko bilakaeran, ordea, lehengaien kostuak % 4,0 igo dira Eraikuntzan eta % 3,8 Ingeniaritza zibilean.

## Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2025

| | Indizea | Aldakuntza (%) | |
|---|---|---|---|
| | | m/m-1 | m/m-12 |
| **Guztira** | **122,3** | **0,5** | **3,0** |
| Eraikinak | 122,1 | 0,4 | 3,0 |
| Ingeniería civil | 123,4 | 0,6 | 2,9 |
| | | | |
| **Lehengaiak** | **124,3** | **0,6** | **4,0** |
| Eraikinak | 124,0 | 0,6 | 4,0 |
| Ingeniería civil | 125,6 | 0,8 | 3,8 |
| | | | |
| **Laneskua** | **116,9** | **0,0** | **0,4** |

Oinarria 2021=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Urriaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

2025eko irailean, eraikuntza-sektoreak kontsumitutako lehengaien kostuak gora egin du oro har. Aurreko urteko hil beraren aldean, igoerarik handienak *Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioan* izan dira (% 9,4ko igoera), eta, ondoren, *Metalezko produktuen fabrikazioan — makineria eta ekipoa izan ezik—* eta *Erauzketa-industrietan* (% 2,0ko urte arteko igoera). Kostuetan emandako igoerak txikiagoak izan dira *Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioan* (% 1,6ko igoera) eta *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzean* (% 1,7koa).

## Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Iraila 2025

| | m / m-12 |
|---|---|
| Ateratze-industriak | 2,0 |
| Kokeak eta petrolioa fintzen | 1,7 |
| Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa | 1,6 |
| Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu | 2,0 |
| Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa | 9,4 |

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Urriaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***
*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*
*Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*
*Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62*